



Mingain urdinari

buruzko informazioa abeltzaintzat

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

NEKAZARITZA, AHIRANTZA
ETA ELIKADURA SAILA

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA,
PESCA Y ALIMENTACIÓN

Zer da mingain urdina?

Mingain urdina, edo **ardien katarro-sukarra izenez ere ezaguna**.

Birus batek eragindako abere gaixotasuna da. Gaixotasun hau *Culicoides* generoko eltxoen bidez kutsatzen da.

Mingain urdin birusak, normalean, **kutsatzen ditu hausnarkariak** (ardiak, behiak, ahuntzak). Mingain urdin gaixotasunak batez ere ardiak kutsatzen ditu. Abelgorriak, nahiz eta ardiak baino gehiagotan kutsatu, ez ditu beti gaixotasunaren sintomak izaten.

Mingain urdinak ez ditu gizakiak kutsatzen. Beraz, ez du ondoriorik osasun publikoan.

Gaixotasunaren eragina **serotipoaren** araberakoa bada ere, mingain urdinak ustiategi batean **eragin ekonomiko adierazgarria izan dezake**; heriotzak, gaixotasuna eta ekoizpen murrizketak direla-eta, eta kalte ekonomikoak gaixotasunak jotako guneeetatik abere biziak ateratzeko debekuak direla-eta.

Gaixoturiko abereentzat ez dago sendabiderik.



Nola kutsatzen da mingain urdina?

Mingain urdinaren birusa **ez da abere batengandik beste batengana zuzenean kutsatzen**.

Kutsadura **eltxo mota batzuek** (*Culicoides* generoa) eragiten dute. Eltxoek aberea gaixorik dagoenean (biremika fasean dagoenean) heldu behar dute. Biremiak 60 egun irauten du abelgorrien kasuetan eta 30 egun ardienetan.





Ardien sintoma klinikoak

Sukarra (42 °C-raino) eta depresioa.

Zauriak, gorritzea eta aho-, oi- eta aho sabai-mukosaren nekrosia.

Mingain handitua eta batzuetan zianotikoa (urdindua).

Sudur jarioa eta sialorrea.

Herrentasuna.

Abortua.

Arazo pneumonikoak.

8-10 egunetan taldearen % 50en heriotza eragin dezake.



Abelgorrien sintoma klinikoak

Maiz, ez dago sintomarik.

Listu jariatze handia, sudur jarioa, disfagia.

Sukarra, konjuntibitisa.

Herrentasuna.

Taldearen % 5 gaixotu daiteke.

BIOSEGURTASUNERAKO ARAUAK

Biosegurtasun arau guztien helburua izango da **gaixotzeko gai diren abereen eta bektorearen arteko kontaktua ekiditea**, Mingain Urdina kutsatu ahal izateko beharrezkoa baita bektorea agertzea, eta material gogorren bidez ezin baita kutsatu. Kontuan izan behar da bektoreen presentzia eman daitekeela egoera naturaletan edota garraiobideetan lekualdatzean.

Bioseguritate arauak honako neurri hauek izan beharko dituzte:

- Beharrezkoak ez diren mugimendu guztiak murriztu egin behar dira, **eta ahalik eta gehien txikitu behar da ustiategikoak ez diren abereen sarrera**. Bisitarik badago, erregistratu egin behar da.
- Lokalak eta garraiobideak aldian behin fumigatzeko neurri zorrotzak hartu behar dira.
- Ustiategian sartu aurretik, **garraiobide guztiak derrigorrez garbitu eta fumigatu behar dira**.
- Bektoreen kontrolerako neurriak zorrotz behar dira. Horretarako, **eltxoen aurkako oihalak erabili, euren hazkuntzarako egokiak diren lekuak kendu (putzuak)**.
- **Eltxoen aurkako eragina duten intsektiziden erabili behar dira**.
- **Eltxoak bete-betean ari diren orduetan** (goizaldean eta iluntzean) **abereak babespean eduki behar dira**.

Gaixotasun susmoaren aurrean zer egin behar da?

Ustiategiko titularrak edo arduradunak gaixotasunaren sintomaren bat ikusten badu, **bere eremuko al baitariari emango dio horren berri lehenbailehen**. Al baitariak gaixotasun susmoa hartzen badu, dagokion Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzua jarriko du jakinaren gainean.

Neurri ofizialak:

- Hurrengo agindua eman arte ustiategiko abereak (abelgorriak, ardiak eta ahuntzak) ez mugitzea
- Ez dago abererik hiltegiara eramatea baimen berezirik gabe (galdetu zeure al baitariari)
- Arrazoiak izanda ere, abereak mugitzeko baimen berezia behar da (galdetu zeure al baitariari)



Telefono zenbakiak:

Araba	Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzua:	945 18 18 18
	Abeltzain Vitoria:	945 25 74 11
	Abeltzain Zuaza:	945 39 92 42
Bizkaia	Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzua:	94 406 68 32
Gipuzkoa	Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzua:	943 11 29 87

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

NEKAZARITZA, ARBANTZA
ETA ELIKADURA SAIA

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA,
PESCA Y ALIMENTACIÓN

Arabako
Foru Aldundia



Diputación
Foral de Alava



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

